



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 24a

107. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulua aldatzen dituena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala ematekoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013-14 ikasturtean eta hurrengoetan mantentzen ditzen ikastetxe eta institutu publikoetan ingeleseko irakurle izateko programa eta deialdiak. Hezkuntza Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren kontusailak ezar ditzen, udalek Haur Hezkuntzako lehen zikloko zentroyen gastuei aurre egitea ahalbidetzeko. Hezkuntza Batzordeak onetsia (9. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulu aldutzen dituen.**

*AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulu aldutzen dituen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2013ko ekainaren 11ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**1. ZUZENKETA**

**ARALAR-NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. 186. artikulua –Salbuespenak– aldatzen da. Honako testua izanen du:

«2. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 186. artikulua aldatzen da. Honako testua izanen du:

"186. artikulua. Salbuespenak.

1. Honakoak daude zerga honetatik salbuespenak:

a) Etxebizitza zein herritan dagoen, beren zereginak handik kanpo bete behar dituzten funtzionario publikoen titulartasunpeko etxebizitzak; hori guztia, aplikatzen zaien legeriarekin bat.

b) Honako hauen titulartasunpeko etxebizitzak: ohiko bizilekua zein herritan daukaten, handik kanpo aldi baterako joan behar izan duten langileak, arrazoi tekniko, antolamenduko zein ekoizpe-

nekoak direla eta, edo bestela enpresa-jarduketari buruzko kontratazioengatik alde egin behar izan dutenak, edo toki-mugikortasuna aplikatzen zaizkienak.

c) Administrazio Publikoaren esku jarri diren etxebizitzak (Nasuvinsa edo kasuan kasuko entitatearen esku), gizarte- alokairurako erabiltzeko.

2. Nolanahi ere, salbuespenak etxebizitza bakarra hartuko du".

Zioak: Zerga hori kobratzeak ez du zentzurik, jabeak borondatea duenean etxebizitza gizarte- alokairuko etxebizitza gisa eskaintzeko.

**2. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

188. artikulua aldatzeko zuzenketa –proposamenaren 2. artikulua–. Honako testu hau izanen du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 188. artikuluko 2. idatz-zatia:

"2. Karga-tasak tarte hauen barrenean egon beharko du: % 0,10 eta % 0,50 artean, Etxebizitza Hutsen Erregistroan agertzen den lehenbiziko urtean; % 0,50 eta % 1 artean, Erregistroan agertzen den bigarren urtean; eta % 1 eta % 1,5 artean, Erregistroan agertzen den hirugarren urtean eta hurrengoetan. Karga-tasa bat bera izanen da udalerrri osoan".

Zioak: Ziurtatzea Etxebizitza hutsen kopurua murrizteko hartzen diren zerga-neurriak eraginkorrak izanen direla.

## **Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala ematekoa.**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala emateko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2013ko apirilaren 29ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **1. ZUZENKETA**

#### **ARALAR-NAFARROA BAI**

#### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

"1. Foru lege honen xedea da 1936ko uztailearen 18tik aurrera izan zen kolpe militarren ondorioz Nafarroan erail zituzten pertsonen edo errepresio frankistaren biktimak izan zirenen oroitzapen historikoa leheneratu, aintzat hartu eta oneratzeari".

Zioak: Erail gabeko biktimak ere gogoan izatea.

### **2. ZUZENKETA**

#### **BILDU-NAFARROA**

#### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko –"Neurriak"– 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

"2. Aurreko idatz-zatian zehaztutako jarduketak udalekin, fusilatuen senitarren elkarteekin, oroitzapen historikoaren arloko elkarteekin eta entitate akademikoekin lankidetzan arituz eramanen dira aurrera".

Zioak: Oroitzapen historikoa berreskuratzeko lanean ari den gizarte-ehuna zabalagoa eta aniztasun handiagokoa da hasierako testuan agertzen dena baino.

### **3. ZUZENKETA**

#### **PATXI LEUZA GARCÍA ETA MANU AYERDI OLAIZOLA**

#### **FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

3. artikuluko –Neurriak– d) letra aldatzeko zuzenketa.

Ondoko hau kentzea proposatzen da:

"d) Egon litezkeen aipamen eta sinbolo frankistak kentzea".

Eta ondoko hau jarri:

"d) Egon litezkeen aipamen eta sinbolo frankistak kentzea, bereziki Rodezno Kondearen plazaren izena".

Zioak: Momentu egokia da Rodezno Kondearen plazaren izena kentzearen errebendikazio historikoa berriro ere mahai gainean jartzeko eta gogorarazteko; izan ere, errebendikazio kontra egin eta bere irizpidea inposatzea lortu zuen Barcina andreak, zeina gaur egun lehendakari baita.

Proposamen honen zentzua da gizartearen eztabaida liskarra duen izen oro kentzea, bizikidetzaren mesedetan, eta bistan da izen horrek eragin duela liskarrik.

### **4. ZUZENKETA**

#### **ARALAR-NAFARROA BAI**

#### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko 1. idatz-zatian bi letra berri –g) eta h)– gehitzea. Testua honela geldituko da:

«g) Gertatutakoen oroitzapena berreskuratzea: gertakaria, data, tokia eta zein izan zituzten protagonista umiliazio publikoko ekintzek –*pase illoa*, errizino-olioa irentsaraztea, etab.–, pertsona askoren kontra egin baitziren horrelakoak Nafarroan, bereziki Errepublikaren aldekoen alargun eta senitarren kontra.

h) Nafarroarentzat berreskuratzea oroitzapen historikoarentzat bereziki adierazgarriak diren lekuen jabetza, eta horiek "Oroitzapenaren gune" bihurtzea».

Zioak: Hartu beharreko neurrien artean jasotzea erail gabe ere biktimak izan zirenen oroitzapena eta leku enblematikoen berreskurapena.

**5. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari beste idatz-zati bat, 3. zenbakiduna, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"3. Era berean, 36ko gerrako biktimen senitartekoen eta Nafarroako Gobernuaren arteko bitartekaritzarako bulego bat sortuko da, zeina Oroitzapen Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoaren menpe egonen baita".

Zioak: 36ko biktimen senitartekoentzako laguntza instituzionala hobetzea.

**6. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

"3. Beren senitartekoen erreklamatu ez dituzten gorpuzkien kasuan, gorpuzkiok hobietatik atera eta lekuz aldatuko dira, baldin eta beren hasierako kokagunetik mugitu, honda edo desager badaitezke, arrazoiz fisikoak edo geologikoak direla medio, azpiegitura zibilak eraiki behar izateagatik, edo lur horiek edozein arrazoiengatik aldatu izateagatik. Oroitzapen Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak kokagune berriak proposatuko ditu gorpuzki horientzat".

Zioak: Hobeki zehaztea gorpuzkiak hobietatik zer kasutan atera behar diren.

**7. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari beste idatz-zati bat, 5. zenbakiduna, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"5. Nafarroako Gobernuak Defentsa Ministerioari Alfontso XII.a gotorlekuaren jabetza eskatuko dio, eta, Ezkaba mendian lurrak dituzten udalekin eta Iruñerriko Mankomunitatearekin batera, batzorde bat eratuko du eraikin hori zaharberritu eta mantentzeko, eta bertan oroitzapen historikoaren museo bat jartzeko. Ezkabako parke naturala izanen denaren antolamendua ere planteatuko da".

Zioak: Nafarroarentzat eskatzea Alfontso XII.a gotorlekuaren jabetza.

**8. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

II. titulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

"II. TITULUA. Administrazio publikoek eta entitate pribatuek dituzten betebeharrak sinbolo, idazkun eta aipamen frankistak kentzeari dagokionez, bai eta sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalak baliogabetzeari dagokionez ere".

Zioak: Nafarroako zenbait administrazio publikok eutsi egiten diete izendapen horiei, eta horrekin zapaldu egiten dira oroitzapen historikoa eta 1936ko estatu-kolpearen eta ondorengo erregimen diktatorialaren ondorioz eraildako herritar nafarrei zor zaien ordaina eta aintzatespena, lege honen azken xedea baitira.

**9. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"9. bis artikulua. Sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalen baliogabetzea.

Nafarroako administrazio publikoek, lege hau argitaratu eta urtebeteko epean, berraztertu eta baliogabetu egiten dituzte erregimen frankistarekin zerikusia izandako pertsonen jasotako sariak, izendapenak, ohorezko tituluak eta gainerako goraipamenak, eta, urtebeteko epe horretan, behar diren zuzemenak egiten dituzte aurreko horiei buruzko ziurtagiriak egiteko. Ziurtagiri horiek publiko egiten dituzte administrazio desberdinek, eta Espainiako Gobernuari igorriko dizkiete".

Zioak: Nafarroako zenbait administrazio publikok eutsi egiten diete izendapen horiei, eta horrekin zapaldu egiten dira oroitzapen historikoa eta 1936ko estatu-kolpearen eta ondorengo erregimen diktatorialaren ondorioz eraildako herritar nafarrei zor zaien ordaina eta aintzatespena, lege honen azken xedea baitira.

**10. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluari beste idatz-zati bat, 4. zenbakiduna, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"4. Nafarroako Gobernuak hitzarmen berri bat sinatuko du gerra zibilari buruzko NUPeko ikerketa-taldearekin. Hitzarmen horrek gaur egun Nafarroako Parlamentuak duena ordeztuko eta Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko du horren finantzaketa. Hitzarmen hori Oroitzapen Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak kudeatuko du".

Zioak: Gaiaren gaineko ikerketa hobetzea.

## 11. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari beste idatz-zati berri bat, hirugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hezkuntzaren arloa:

"3. Nafarroako Gobernuak eta Hezkuntza Departamentuak, lege honetako 4. artikulua aipatzen duen Oroitzapen Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoarekin lankidetzan, DBHko eta Batxilergoko curriculum-edukiak, kasuan kasuko arlokoak, berraztertu eta eguneratu eginen dituzte, halako moduz non Nafarroan gertatutakoaren aintzatespenaren eta egiaren balioak, foru lege hau sorburu duten balioak, sartuko baitira curriculum horretan eta ikastetxeek indartuk baitituzte".

Zioak: Nafarroako Administrazioak zaindu behar du gure erkidegoko ikastetxeetan ezagut dadila hemen gertatutakoaren errealitatea. Gobernuak berak lagundu behar du Nafarroako belaualdi berriek irispidean izan dezaten egia, balio demokratikoak indartzeko modu gisa, eta gertatutakoak ez errepikatzen berme gisa.

## 12. ZUZENKETA

### ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

"2. Nafarroako Foru Komunitateko erakundeek urtero eginen dute presondegi horretan kartzelararuta egon ziren preso oroitzapenaren aintzatespen- eta omenaldi-ekitaldi bat, oroitzapen historikoaren berreskurapenaren alde lan egiten duten Nafarroako entitate eta kolektiboekin lankidetzan jardunez".

Zioak: Hobeki zehaztea laguntza emanen duten entitate eta kolektiboek izan.

## 13. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua ordeztuko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

"14. artikulua. Frankismoaren esklaboak.

1. Frankismoaren kontzentrazio- eta esklabo-esparruak.

Nafarroako Gobernuak seinaleztatu eginen ditu bai Nafarroan izan ziren kontzentrazio-esparruak (Iruñean eta Iratzen), bai eta frankismoko esklaboen lanarekin eginiko obrak, zeinak Kontzentrazio Esparruen Ikuskaritza eta Burutzaren menpekoak izan baitziren. Seinale horietan jasota egonen da zer bizitza-baldintza izan zituzten pertsona horiek, zenbat esklabo aritu ziren, eta jendeak gertakari haiek ezagutzeko garrantzitsuak izan daitezkeen beste edozein datu.

2. Babes arkitektonikoa.

Jendea itxita eduki zeneko eta bortxazko lanak arazi zitzaizkieneko lekuen hondakin arkitektonikoak.

3. Nafarroako Bortxazko Lanaren Interpretazio Zentroa.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako bortxazko lanaren interpretazio zentro baten sorrera bultzatuko du, preso edo gatibuek eginiko obretakoren batean, halako moduz non jende guztiak bisitatzen ahalko duen, bai eta hezkuntza-komunitateak ere.

4. Bortxazko lanari onura atera zioten enpresa eta erakunde pribatuen ikerketa sustatuko da, eskueran izan dezaketen informazio guztia eman lagundu dezaten errealitate horren ikerketan, preso haiek lanean aritu ziren lekuak seinalezta ditzaten eta bizirik dirauten pertsonen kalte-ordaina eman diezaieten".

Zioak: Eremu horien errealitatea berriaz dago aipatu beharra, azken helburu hartuta ahanztura saihestea, hori nahi izan baitute ondare historiko-arkitektoniko hori suntsitzera bideratutako obrei ekin dieten zenbait erakundek.

Era berean, gerrako preso eta gatibuen lanari onura atera zioten enpresen eta erakundeen arduraren nabarmendu nahi da, eta gure legedia egokitu ere bai Europako demokrazien legedira, non arlo honetan aurrerapenak egin baitira.

**14. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

«2. Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren aintzatespen publikoko ekintzak bultzatuko ditu gerra zibilean eta frankismoaren garaian eraildako pertsonen oroitzapena oneratzeko, bai eta, erailak izan ez baziren ere, arrazoi politikoengatik Nafarroako herri askotan errepresioa eta umiliazio "eredugarriak" sufritu behar izan zituzten pertsonena ere».

Zioak: Erail gabeko biktimak ere gogoan izatea.

**15. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Familiek erreklamatu ez dituzten gorpuzkiak hobiratuta dauden lekuetatik ateratzea ez da bide, aipatu diren salbuespen-kasuetan izan ezik. Ez da bide, beraz, lurperatze kolektiboko lekurik ezartzea.

**16. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorra –"Ekitaldi instituzionala"– aldatzeko zuzenketa. Hauxe izanen da testu berria:

Foru lege hau indarrean sartu ondoko urtean zehar, Nafarroako Gobernuak ekitaldi bat eginen du parke horretan, biktimei omenaldia egiteko eta parkea inauguratzeko, eta, ekitaldi hori egiteko, lankidetzan arituko da Nafarroako Parlamentuarekin, Sartagudako Udalarekin, 1936ko biktimen senitartekoen elkarteekin eta oroitzapen historikoz arduratzen diren elkarteekin lankidetzan".

Zioak: Oroitzapen historikoa berreskuratzeko lanean ari den gizarte-ehuna zabalagoa eta aniztasun handiagokoa da hasierako testuan agertzen dena baino.

**17. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor berri bat, bosgarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Bosgarren xedapen iragankorra. Alfontso XII.a Gotorlekuaren Batzordea.

Alfontso XII.a Gotorlekuaren Batzordea eratuko da, non honakoek hartuko duten parte: Nafarroako Gobernuak, Ezkaba mendian lurrak dituzten udalek eta Iruñerriko Mankomunitateak. Batzordearen xedea izanen da kudeatzea Nafarroako Gobernuak Defentsa Ministerioari gotorlekuaren jabetza eskuratzeko egiten dion eskaera, kronologikoki ezartzea gotorlekua zaharberritzeko eta mantentze-lanetarako urratsak, Oroitzapenaren Museoa izanen denaren sorrera, bertan kokatuko baita, eta parke naturala bihurtuko duen

Zioak: Alfontso XII.a Gotorlekuaren Batzordearen izaera eta xedea zehaztea.

**18. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor berri bat, seigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herriaren ordezkari gorena denez, bere egoitzako atalondoko leku nabarmen batean plaka bat jarriko du, altxamendu militarren ondorioz eraildako kargudun nafar guztiak omentzeko eta aintzat hartzeko". Testuak Nafarroako bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, eta eraildako pertsonen izenak eta kargua aipatuko ditu, bai eta herriaren izena, toki-kargudunak zirenen kasuan".

Zioak: Altxamendu militarra modu zilegian eratu erregimen demokratiko baten kontra gauzatu zen, eta, beraz, lehenbiziko biktimen artean demokratikoki hautatutako ordezkariak egon ziren. Nafarroako Parlamentuak ezin dio ezikusiarrena egin horri; izan ere, ikuspuntu politiko batetik, horixe da agian argitasun handienarekin ikusarazten duena kolpe militarren izaera antidemokratiko eta diktatoriala. Zuzenketa honekin, ondorioz, aintzatespen instituzional bat egin nahi zaie pertsona horiei, pertsona izateaz gain herriaren ordezkari ere baziren eta.

**19. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Titulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala emateko Foru Lege proposamena.

Zioak: Legearen irismena handitu eta 36ko errepresioaren beste biktima batzuentzat ere izan dadila: espetxean sartu zituztenentzat, umilazio publikoa jasan behar izan zutenentzat, beren ondasunez gabetu zituztenentzat, etab.

**20. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

«Nafarroan, frankismoaren biktimek, de facto, babesgabetasuna pairatu zuten foru erakundeen aldetik, 2003ko martxoaren 10era arte. Egun hartan, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak eta Alargunen Herria Elkarteak izandako ekimenez, adierazpen bat onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak, "1936ko kolpe militarren ondorioz fusilatutako Nafarroako herritarrak omendu eta dagokien ordain morala ematekoa". Adierazpen hori mugarri bat izan zen 1936ko estatu kolpearen biktimen aintzatespenerako, baina, batez ere, jauzi kualitatibo bat izan zen erakundeen aldetik, jarraipena eman ziena Nafarroako zenbait udal eta kontzejuk eginak zituzten urratsei, frankismoaren biktimek egia, ordaina eta justizia izateko daukaten eskubidea aitortzeko eta azpimarratzekoak».

Zioak: 36ko biktimen oroitzapena oneratu egin behar dela beti argi izan zutenei buruzko ikuspegi zabalagoa ematea.

**21. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren zazpigarren lerrokada aldatzea. Testu hau izanen du:

«Oroitzapen historikoaren berreskurapena ez da oraindik amaitu Nafarroan. Prozesu honetan nabarmendu daitezkeen gertakari adierazgarriak dira biktimen senitartekoen berek eginiko lana,

oroitzapenaren berreskurapenean laguntzeko Nafarroan beren kasa sortutako talde ezberdinak, garai hartan gertatutakoen argigarri izan diren ikerketa eta argitalpen ugariak, Nafarroan biktimei egin zaizkien herri-omenaldi eta esker ona adierazteko herri-ekitaldiak, eta Sartagudan oroitzapenerako jarritako parke erreferentziala. Urte hauetan, 2003ko martxoaren 10ean onetsitako adierazpen instituzionalak aitortzen duen moduan, "Franco diktadorearen heriotzaren ondoren, maiz, hildakoen ahaideek eta lagunak atera zituzten hilotzak ezpondetatik, soroetatik edo paretetatik. Dena eguargiz egin zuten, hurbilenganako maitasunez eta duintasunez, baina aintzatespen ofizialik gabe". Nafarroako Parlamentuan 2013ko apirilean onetsitako irizpena, zeinak parlamentu-talde guztien babesa jaso baitzuen 36ko biktimei buruzko lantaldean, orain arteko azken erreferentea da biktima horien oroitzapena oneratzeko bidean».

Zioak: Azken urte hauetan oroitzapena berreskuratzeko lanean parte hartu dutenen eta mugarri izan diren gertakarien gaineko informazioa osatzea.

**22. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 14. lerrokada aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

"Elementu berezi gisa, garrantzitsua da, gainera, hiru fenomeno bereziki araugintzaren esparrutik ekitea: Alfontso XII.aren Gotorleku edo Ezkabako Gotorlekuan presondegi bat egotea, bi kontzentrazio esparru egotea (Iruñean eta Iratxen) eta bortxazko lana arazi zen dozenaka esparru (Gati-buen Kontzentrazio Esparruen Ikuskaritzaren menpe egon ziren 1937 eta 1940 artean, eta Zigor Batailoien eta Kontzentrazio Esparruen Burutzaren menpe 1940 eta 1942 artean). Beharrezkoa da horretan jardutea, leku horietan gauzatutako errepresioaren tamainarengatik ez ezik, familia askorentzat Ezkabako Gotorlekuak, kontzentrazio-esparruek eta bortxazko lanerako esparruek daukaten inplikazioengatik ere".

Zioak: Bereziki garrantzitsua da leku hauei buruz etorkizunean egiten den arautzeak existitu ziren leku guztiak har ditzala, baita bortxazko lanak izan ziren esparru ugariak ere, aipatu gabe baitzeuden jatorrizko testuan.

### 23. ZUZENKETA

#### ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari lerrokada berri bat gehitzea, azkenaurrekoa izanen dena. Testu hau izanen du:

«Lege honek xede du, halaber, gertatutakoa gogoraraztea, eta, exekutatuak izan ez baziren ere, kolpe militarren arduradunen eskutik Nafarroako hainbat herritan zigorra, errepresioa, umiliazio publikoa eta arbuio instituzionala modu sistematikoan, planifikatuan eta "eredugarri" gertatzeko asmoz jasan behar izan zuten pertsonen oroitzapena –gehienak emakumeak– oneratzeari.

Zioak: 36ko beste biktima batzuen memoria ere berreskuratzea, zeinak erailak ez izan arren, errepresaliatuak izan baitziren halaber".

### 24. ZUZENKETA

#### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenean bi lerrokada berri gehitzea, bosgarren lerrokadaren ondoren.

"Urte haietan, gainera, ez zen abian giza eskubideen urratzeak ikertuko zituen inolako prozedura

judizialik; urratze horietako batzuk gizateriaren aurkako krimen gisa kalifikatu izan dira, hala nola desagerrarazpenak edo haur jaio berrien lapurretak. Biktimei, horrenbestez, justiziarako eskubidea ere kendu zitzaion, eta, hala, zigorgabetasunerako bidea ireki zitzaion giza eskubideen urratze horien egileei.

Hori horrela, era askotako erakundeek gogorazi izan diote Espainiako Estatuari –esate baterako, Nazio Batuek, Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren bidez, edo Amnistia Internazionalak– amaitu beharra dagoela nagusi den zigorgabetasun horrekin, eta dagokien kalte-ordaina eman behar zaiela herritarrei, justiziaren, egiaren eta kalteen ordaintzaren bidez. Era berean, agintari espainiarrei gogorarazten diete beren legedia egokitu beharra dutela, halako moduz non nazioarteko zuzenbidean krimenezat jotako horien aurka abia litezkeen ikerketak erraztu egiten baitira".

Zioak: Zioen azalpenean sartu nahi dira gizateriaren aurkako delitu horiek sufritu zituzten pertsonen babesgabetasun juridikoko egoera, gaur arte nagusi izandako zigorgabetasuna eta erakunde desberdinek egoera antidemokratiko eta bidegabe horrekin amaitzeko emandako gomendioak.



---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013-14 ikasturtean eta hurrengoetan manten ditzan ikastetxe eta institutu publikoetan ingeleseko irakurle izateko programa eta deialdiak.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2013ko irailaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013-14 ikasturtean eta hurrengoetan manten ditzan ikastetxe eta institutu publikoetan ingeleseko irakurle izateko programa eta deialdiak.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2013-2014 ikasturtean eta hurrengoetan manten ditzan ikastetxe eta institutu publikoetan ikasle ingelesdunek irakurle gisa laguntzeko programa eta deialdia.”

Iruñean, 2013ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren kontusailak ezar ditzan, udalek Haur Hezkuntzako lehen zikloko zentroen gastuei aurre egitea ahalbidetzeko.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2013ko irailaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren kontusailak ezar ditzan, udalek Haur Hezkuntzako lehen zikloko zentroen gastuei aurre egitea ahalbidetzeko.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren kontusailak ezar ditzan, 2012-2013 ikasturterako toki

entitateentzako dirulaguntzei buruzko 411/2013 Ebazpeneko 2. puntuan ezarritako gastua egokitzeko beren Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen gastuei ekite aldera udalek beharrezkoak dituzten baldintzetara.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren kontusailak ezar ditzan, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen 2012-2013 ikasturteko kudekaeta eta funtzionamenduari buruz udalekin sinatutako hitzarmen ekonomikoetan ezarritako hezkuntza arloko gastua egokitzeko.”

Iruñean, 2013ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera





